

“VIRGEN CARMELI” ONTZIAREN NAUFRAGIOA

-Malen Etxaniz Aduriz-

Euskara eta Literatura ikasgaietan, bigarren ebaluaketa honetan, “Gertakari historikoa”-k landu ditugu. Hori horrela, ikasitakoa eta Orioko herriko errealitatea elkartzeko asmoz, gure inguruko pertsonen bizitako historiako une esanguratsu ezberdinak biltzea izan da helburua. Izan ere, historiako gertakizun asko liburuetan jasotzen badira ere, badaude orain arte inon irakurri ez ditugun istorioak: gure senide, lagun edo herritarrenak.

“Virgen Carmeli” izeneko ontziaren naufragioa 1952ko apirilaren 22an gertatu zen Orioko barraren parean. Nire aitona, Antonio Aduriz Urdangarin-ek, 17 urte zituela, erreskatean parte hartu zuen.

Garai hartan, Orioko itsas-sarrera oso arriskutsua zen, kanpoko barra eraiki gabe baitzegoen. Ondorioz, ezbehar asko gertatzen ziren. Horrelaxe kontatzen du Fabian Loidi-ren bertsoak:


*“Oriotarren kezka minena da barra,
itsasorako duten ur-bide bakarra,
ogi billa joateko igaro bearra,
eriotza dutela zelatari zaarra”.*

Egun hartan, “Virgen Carmeli” baporea Donostiatik zetorrela, olatuek arroken kontra bultza eta irauli egin zen. Bertako hamalau arrantzaleak uretara erori eta horietako lau bertan hil ziren, itota. Beste bi, berriz, baporearen barruan geratu ziren, kaskoa azpikoz gain zuen ontziaren barruan, nolabait, han sortutako aire poltsan babesturik. Bi gizonek, laguntza eske, euren eskuekin kaskoa jo zuten.

Ontzia iraulirik ikustean, gainerako baporeetako arrantzaleak laguntzera joan ziren, tartean nire aitona. Kaskoan harrapaturiko gizon haien egoeraz jabetutakoan, nola

edo ahala bertatik ateratzen saiatu ziren. Hasieran ez zekiten nola egin eta gauza desberdinak probatu omen zituzten, aitonak azaldu didanaren arabera. Azkenean, aizkorarekin egurrezko kaskoa zulatzea erabaki zuten. Kaskoa zulatu orduko baporea hondoratzen hasi zen. Bi gizonetatik bakarrak lortu zuen zulotik bizirik irtetea.

Egoera ikusirik, arrantzarako sarea erabili zuten hilotzak uretatik atera eta ahal zen moduan ontzietara igo eta herriko moilan lehorreratzeko. Bertara iristerako, berriak sortutako kezka zela-eta, sekulako jendetza zegoen bilduta.




Argazkia 1: Herri guztia gorpuen zain, Orioko kaian.



Argazkia 2: Aitona, 17 urte zituela, gorpuak lehorreratzeko.

Esan beharra dago, hau ez dela izan Orioko barran gertatutako ezbehar bakarra. Ondorioz, Orioko itsas-sarreraren arriskua ikusita, kanpoko barra eraikitzea erabaki

zen. Horrez gain, Orioko Udalak plaka bat jarri zuen barra-muturrean, bertan hildako marinel eta arraunlarien oroimenez.



Argazkia 3: Orioko Udalak sortutako plaka.